

Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi ondoren eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Zalantzak, homosexualitatea, zahartzarora

Zalantzak. Bere zalantza, beldur eta aurreiritziei aurre egin behar dien emakume baten prozesu intimo eta pertsonala aurkezten digu pelikulak. Bere motibazioa lekuz kanpo dago bizi den munduan. Erakartzen duen horrek kontraesana sentitzera darama.

Homosexualitatea. Urte gutxitan gizartea asko eraldatu eta ireki den arren, sexu bereko bikoteak oraindik ez daude normalizatuta gizarteko kolektibo guztietan.

Zahartzarora. Hirugarren adina bizitzeko hainbat modu daude. Dagoeneko bizitakoari, errutinei eta ohiturei hel diezaiekegu edo esperientzia berriei ilusioz ekin.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Zalantzei buruz: Zer da norbere buruarekin gatazka bat izatea? Nola hartzen ditugu erabakiak, buruarekin edo bihotzarekin? Barruak esaten digunari kasu egiten al diogu? Norbere buruarekiko lehiala izan gabe zoriontsu izan al gaitzake?
- Homosexualitateari buruz: Pertsona baten identitate edo aukera sexuala jaiotzetik zehaztua egoten al da?
- Zahartzarora buruz: Adindun garenean jakintsuagoak al gara? Gaztetako akatsak saihesten al ditugu? Noiz hasten da zahartzarora?

...pelikula ikusi ondoren

- Nolakoa da Axunen mundua? Eta Maiterena? Nolakoa da Axunen eta Maiteren arteko harremana? Zer sentitzen dute elkarrekiko? Zer esan nahi dute Axunek irlan Maiteri esandako hitzek? «Asko gustatzen zait nolakoa naizen zurekin nagoenean. Ni ez banintz bezala sentitzen naiz baina era berean ni sentitzen naiz erabat».
- «Oso galduta nabil, oso nahastuta» esaten dio Axunek Juliani kontzertu irteeran. Zer gertatzen zaio Axuni? Lortzen al du Axunek bere sentimenduak ulertzea? Eta onartzea?
- Nolakoa da Axunen eta bere senarraren arteko harremana? Zoriontsuak al dira elkarrekin? Zerk lotzen ditu?

Maite Aseginolazaren laguntzarekin.

80 egunean

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: 80 egunean.

URTEA: 2010.

IRAUPENA: 105 min.

HERRIALDEA: Euskal Herria.

ZUZENDARIA: Jon Garaño, Jose Mari Goenaga.

AKTORE-ZERRENDA: Itziar Aizpuru, Mariasun Pagoaga, José Ramón

Argoitia, Ane Gabarain, Zorion Egileor, Patricia López.

EKOIZPEN-ETXEA: Irusoin / Moriarti Produzioak.

Sinopsia

Axun, 70 urteko emakumea, alabaren senar ohia zaintzera joango da ospitalera. Bere ezusterako, ondoko gaixoa zaintzen duen emakumea Maite da, nerabezaroko lagun mina, 50 urte luzetan ikusi ez duena. Gaztetan zuten kimika oraindik bizirik dagoela somatuko dute berehala. Axolagabe gozatu eta dibertitzen dira elkarrekin, Axun, Maite lesbiana dela jabetzen den arte. Bere sentimenduak dudatan jarriko ditu Axunek: zer jarraitu, burua edo bihotza?

80 egunean



baketik